

**Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak
barne-eskariaren susperraldia iragartzen du, urte
arteko hazkunde positiboarekin.**

**EAEko BPGd-aren hazkundera % 0,8koa
izango dela estimatzen da 2010. urterako**


Euskal ekonomiaren hiru hileroko eboluzioaren inguruan eskura ditugun azkeneko datuek diotenez, euskal Aurrezki Kutxek Euskadiko Autonomia Erkidegoko **Barne Produktu Gordinaren (BPGd-aren) urte arteko % 0,8ko hazkundera aurreikusten dute, termino errealetan, 2010eko ekitaldirako**. Horrek tarteko maila hartzen du, Europar Batasunerako estimatutako % 1,7aren eta Espainiarako kalkulatu den -% 0,3aren artean, hain zuzen ere.

Maiztasun altuko serieen erabileran oinarritutako aurreikuspen horrek **barne-eskaria suspertu egingo dela iragartzen du**, maila hori hazkunde positiboetan baitago gaur egun (% 0,4 inguruan), kontsumo pribatua berraktibatzearen ondorioz (% 0,9) eta inbertsioaren uzkurraldi txikiagoaren ondorioz (-% 0,2), balio positiboaren oso hurbileko mailetan kokatzeraino. Kontsumo publikoak, bere aldetik, krisi-prozesuan jarduerak izandako berraktibazioan garrantzizko papera jokatu ondoren eta sendotze fiskaleko prozesuaren eraginak bere baitan jasan eta gero, hazkunde zertxobait negatiboa erakusten du (-% 0,1ekoa) eta kontsumo pribatuak ordeztu du. Kanpoko sektorearen ekarpenak aurreikusten duenez, inportazioentzat espero den mailatik gora suspertuko dira esportazioak (% 0,8an azken horiek eta % 0,2an inportazioak), eta horri esker hazkundera izango duen ekarpena 4 puntu portzentualekoa izango da, gutxi gorabehera.

Eskaintzaren ikuspegitik, **industria sektorearen susperraldia baieztatzen da** —eta horrela aurreneko hiruhilekoan erregistroa negatiboa izan bazen ere (-% 1,6koa) % 1,2koa izango da 2010. urterako—, eta baita zerbitzuen sektorean ere, lehenengo hiruhilekoan % 0,7ko hazkundera izan ondoren urte-amaierarako % 1,4ra iristea espero baita. Eraikuntzak, bere aldetik, ez du inolako suspertze-zantzurik erakutsi.

Ereduak 2010eko ekitaldian estimatutako hazkundera lortzeko, dena den, hirugarren hiruhilekoaren eboluzioak funtsezkoa izaten jarraitzen du, garai horretan nabaritutako baitira defizit publikoa doitzeko hartutako neurrien lehen ondorioak, batetik, eta baita uztailean BEZaren igoera indarrean jarri ondorengo eraginak ere.

BPGd-aren hilez hileko hazkundearen estimazioak



EAEko hiru hileko kontabilitatea - ESKARIA

	2008	2009	2010
Urte arteko hazkundearen %			
Kontsumo pribatua	1,6	-3,8	0,9
Kontsumo publikoa	4,8	3,2	-0,1
Kapital-sork. gordina	0,5	-8,3	-0,2
Barne-eskaria	1,8	-4,0	0,4
Esportazioak	4,2	-14,4	0,8
Inportazioak	3,8	-14,7	0,2
BPGd guztira	1,9	-3,3	0,8

EAEko hiru hileko kontabilitatea - ESKAINTZA

	2008	2009	2010
Urte arteko hazkundearen %			
NEKAZARITZAKO BAGd	0,5	2,1	-22,5
INDUSTRIAKO BAGd	-0,5	-9,5	1,2
ERAIKUNTZAKO BAGd	-1,1	-5,7	-4,0
ZERBITZUETAKO BAGd	3,5	-0,1	1,4
Zerga garbiak	1,8	-3,4	2,7
BPGd guztira	1,9	-3,3	0,8